



ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2017ko azaroaren 5ean egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
1. Sarrera	2
2. Udal Kudeaketa	2
Ordezkaritza lanak	2
Elkarbizitzako proposamena	3
OA Kultur elkarte	3
Zerain Dezagun Fundazioa	4
Udalaren balorazioa	4
2017ko aurrekontuen jarraipena	5
3. Batzordeen berri	7
3.1 Herri Bizitza	7
3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	16
3.3 Tokiko Garapena	20



1. Sarrera

- Agintaldiko zazpigarren Herri Batzarra, aurtengo bigarrena. Uztailean ez egitea erabaki genuen, lur mugen eguneraketa proiektua bukatzeko auzokako 5 bilera (60tik gora lagunekin) egiteko baliatu genuelako.
- Bilera honen helburua da maiatzetik urria bitartean egindakoen berri ematea; bai orokorrean egin duguna eta baita batzordeen bidez egindakoa ere. Zertan ari garen kontatzeko eta 2018ra begira jarri eta proposamenak jasotzeko.
- Hurrengo Herri Batzarra: 2018 urte hasieran egiteko asmoa dago.

2. Udal Kudeaketa

2.1 Ordezkaritza lanak

Epealdi honetan egindakoak taulan jaso ditugu:

ERAKUNDEA	BILERA KOPURUA	ORDEZKARIAK
Partzoneria	Batzordea 4	Jabier, Arantza eta Mikel
	Junta 5	
Sasietza	Batzarra 1	Amaia
Tobera Musika eskola	Junta 1	Arantza
Etxebizitza Saila EJ	Bilera 3	Amaia, Arantza eta Ana Eceiza
Nekazaritza Saila EJ eta Golmen	Bilera 2	Amaia, Arantza, Joxemari eta Ana Eceiza
Udalbiltza	Prentsaurrekoa 1	Aloña, Amaia, Mikel eta Arantza
	Urriak 1 erreferenduma Katalunia Nazioarteko bisitari	
Kultura Saila GFA	Prentsaurrekoa 1	Arantza
Burdinaren bidea		
Mendia Saila GFA	Bilera 1	Joxemari, Arantza eta Javier Muñoa
Lurralde antolamendua GFA	Bilera 1	Arantza, Ana Eceiza eta APAIN,S.A (4 kide)
Ingurumen Saila GFA	Bisita 1	Joxemari, Arantza eta Aizpeako auzotarrak
Errepide Saila GFA	Bilera 1	Amaia, Arantza, Ana Eceiza eta Mendarte betelaneko lurjabeak
Besteak (Agintzari, Fiare, Aztiker)	Bilera 4	Amaia, Arantza, Mikel, Joxemari, Jabier eta Begoña Olarte
Guztira maiatza/urria	27	



Aipatzekoa:

- Eskualde mailako ordezkartzen artean dedikazio handiena Partzoneriari eskaini diogu.
- Eskualde kanpokoan artean Gipuzkoako Foru Aldundia eta Jaurlaritzarekin.
- Udalbiltzaren kasuan Kataluniako Errepublikaren sorrerari lotutakoak dira.

2.2 Elkarbizitzako proposamena

Prozesua martxan da eta 3 bilera egin dira: ekainak 6, ekainak 27 eta irailak 12an.

Azken bileran bitartekaritzaren aukera eta beharra mahaiganeratu zen. Hori dela eta Aztikerrekin harremanetan jarri eta *konfliktoaren intentsitatea neurtu eta prozesu bateratuaren aukera aztertzekeo egitasmoa* martxan dago momentu honetan.

Hori bukatutakoan Aztikerrek aurrera begira zer egin daitekeen proposatuko du.

2.3 OA Kultur elkarte

Herriko kultur ekintzak antolatzen ditu Herri Bizitza batzordearen bitartez: udaberriko kulturaldia, festak, euskararen eguna, gabonak...

Bere sorreratik (1999. urtean) ez zegoen juntako aldaketarik erregistratua. Egoera hau erregularizatu da eta Juntakide berriak hauek dira:

- Lehendakaria: Mikel Etxeberria
- Idazkaria: Garazi Zubeldia
- Diruzaina: Aloña Elortza

Gainera, junta aldatzerakoan, legeak eskatutako estatutu aldaketa bat burutu da eta egoera erregularrean dago orain.



2.4 Zerain Dezagun Fundazioa

Zeraingo ondare turistiko-kulturala kudeatzen du.

Bere sorreratik (2000. urtean) ez zegoen juntako aldaketarik erregistratua. Eusko Jaurlaritzako fundazioen erregistroak, hasieratik gaur-egun arteko aldaketa guztiak erregistratzeko gomendatu zigun. Horrela egin da eta abuztu honetan erregularizatu da fundazioaren egoera.

Patronatoaren egungo egoera:

- Lehendakari : Arantza Ruiz de Larrinaga
- Lehendakari ordea: Mikel Etxeberria
- Idazkaria: Amaia Junquera
- Bokala: Jose Maria Apaolaza
- Bokala: Santiago Muñoa

Azken urteetan hainbat irregulartasun fiskal egin ziren eta egoera hori ere erregularizatzeko bidean dago Ogasunean (GFA).

Orohar, ondorengoak izan dira fundazioaren aurtengo eginkizun nagusiak:

- Lur Bankuaren proiektua: Burgomendiko proiektuaren jarraipena eta Irukateko proiektuaren eskaera.
- Autokarabana gunea.
- Azoka Ekologikoa.

2.5 Udalaren balorazioa

Martxan da bigarren urteko balorazioa. 16 urtetik hasita errolatuta dauden guztiek dute balorazioa egiteko aukera. 5 minutu behar dira betetzeko eta oso garrantzitsua da denon iritzia.

AZAROAK 13ra arte egon da postaz bidaltzeko epea irekita. Emaitzak hurrengo herri batzarrean emango ditugu.



2.6 2017ko aurrekontuen jarraipena

2017ko lehen 9 hilabetetako aurrekontuaren exekuzioaren egoerari dagokionez, jarraian bi taula atxikitzen dira, 2017rako onartutako aurrekontuaren eta gauzatutakoaren arteko konparaketa azaltzen dena.

2017	GASTUAK		
	AURREKONTUA	IRAILA ARTE	%
MAILEGUAK	72.156,00 €	66.428,27 €	92,06%
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	146.077,00 €	108.582,35 €	74,33%
HIRIGINTZA	10.000,00 €	15.400,00 €	154,00%
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	13.031,75 €	74,47%
UR -ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	16.200,00 €	8.340,99 €	51,49%
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.200,00 €	15.811,07 €	74,58%
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	6.900,00 €	1.661,85 €	24,08%
HEZKUNTZA PROIEKTUA	14.300,00 €	8.902,67 €	62,26%
KULTUR EKIPAMENDUAK ETA SUSTAPENA	12.000,00 €	9.112,00 €	75,93%
EUSKERA	6.700,00 €	3.386,24 €	50,54%
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	10.500,00 €	6.812,45 €	64,88%
TURISMOA	29.500,00 €	26.025,16 €	88,22%
ADMINISTRAZIO OROKORRA	35.300,00 €	20.613,05 €	58,39%
GASTU FINKOAK	398.333,00 €	304.107,85 €	76,35%
ZERAINTZEN, S.A	41.970,00 €	36.310,92 €	86,52%
GASTU FINKO OROKORRAK	440.303,00 €	340.418,77 €	77,31%
BASERRI BIDEAK	24.806,00 €	0,00 €	0,00%
	26.063,00 €	0,00 €	0,00%
FRONTOIKO TEILATUA (lehen Bide berdea)	25.000,00 €	0,00 €	0,00%
BIODIBERSITATEA	29.598,00 €	0,00 €	0,00%
AUZOEN INBERTSIOAK	4.000,00 €	0,00 €	0,00%
ETXEBIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	39.000,00 €	0,00 €	0,00%
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	148.467,00 €	0,00 €	0,00%
DENERA	588.770,00 €	340.418,77 €	57,82%

2017	SARRERAK		
	AURREKONTUA	IRAILA ARTE	%
IBILGAIUEN _ONDASUNAK	68.750,00 €	64.488,55 €	93,80%
OBRAKO ZERGAK	5.000,00 €	3.641,02 €	72,82%
TASAK (ZABORRA FRONTOIA)	25.600,00 €	15.478,32 €	60,46%
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	180.249,93 €	71,94%
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	3.089,59 €	45,44%
SARRERA FINKOAK	356.693,00 €	266.947,41 €	74,84%
E.J: KARTZELAKO BERRITZEA	2.422,00 €	0,00 €	
E.J: HEZKUNTZA	0,00 €	10.701,04 €	
GFA: FRONTOIKO TEILATUA (Lehen Bide berdea)	0,00 €	25.613,00 €	
E.J: BIODIBERSITATEA	28.000,00 €	7.029,55 €	25,11%
GFA: BASERRI BIDEAK	17.364,00 €	0,00 €	
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	47.786,00 €	43.343,59 €	90,70%
MAILEGUA	197.582,00 €	190.000,00 €	96,16%
DENERA	602.081,00 €	499.678,00 €	82,99%



Jarraian, deigarriak izan daitezkeen hainbat desbideratzeen azalpenak:

1. *Maileguak*. Aurretik zetorren mailegua ordaintzeko, aurrekontuan 72.156 €-ko partida genuen aurreikusita 2017-2018 urteetarako. Aurreko herri batzarrean esan bezala, mailegu berri bat eskatu da 190.000 €-koa eta honek, aurrekotik falta dena ordaintzeko dirua ere biltzen du.
2. *Hirigintza*. Partida, orain arte erabilitakoa baino txikiagoa da, urtean zehar proiektu berriak atera direlako eta arkitektoaren lana eskatu dutelako.
3. *Gastu aldagarriak*. Datu gabe daude, oraintxe exekutatzen hari direlako proiektuak eta urte bukaerarako bukatuta egongo dira.
4. *Sarrera Aldagarriak*. Bide berdeen proiektuak ez du diru-laguntzarik jaso eta beraz, proiektu horren partida, orain, frontoiko teilatua konpontzeko erabiliko da. Diputazioak, lau-urteko laguntza batzuk atera zituen, hasiera batean proiektu handiak egiteko laguntzak eskainiz, baina bukaeran 25.000 € besterik ez dizkigute eman eta ondorioz, teilatua egiteko besterik ez digu ematen laguntzak.

Aldaketa guzti hauek eta beste txikiago batzuk, 2017ko itxieran azalduko dira.



3. Batzordeen berri

3.1 Herri Bizitza

Jarraian hilabete hauetako ekintzak eta diru-kontuak azaltzen dira:

- Udaberriko Kulturaldia

Aurten kultur astea izan ordez, hilabetea izan genuen, aste bakoitzean pare bat ekintzarekin hilabetea osatuz.

2017ko UDABERRIKO KULTURALDIA	IRTEERAK	SARRERAK	KOSTUA
MAIATZAK 6 -SEGURA ZERAIN MENDI LASTERKETA- (Xabi udal langilearen ordu batzuk udalekoak)	0,00 €		
MAIATZAK 11 -PAKO ETXEBERRIA HITZALDIA ETA AFARIA-	225,00 €		
MAIATZAK 12 -PATATA TORTILA LEHIAKETA-OSAGAIK	352,69 €		
MAIATZAK 12 -PATATA TORTILA LEHIAKETA-SARIA 2 Laguntzat afaria	50,00 €		
MAIATZAK 14 -HERRI BAZKARIA-SAN IXIDRO EGUNA-	278,45 €	408,00 €	
MAIATZAK 18 -ARANTXA URRETABIZKAIA HITZALDIA-	125,00 €		
MAIATZAK 19 -BALTASA GALLARDO MUSHERRAREN HITZALDIA	125,00 €		
MAIATZAK 23 -JUANTXO AGIRRE MAULEONEN HITZALDIA-	125,00 €		
MAIATZAK 24 -FARAPI TALDEAREN HITZALDI-TALLERRA-	125,00 €		
	1.406,14 €	408,00 €	998,14 €


- Festen egitarauko eta urtekariko azalen lehiaketa

Aurreko urtean bezala ere aurten lehiaketa bat egin da urtekariko azala eta festetako egitarauko azala aukeratzeko.

Parte hartzea: helduen 3 lan urtekarirako (Aroa Saez de Egilazen lana irabazle) eta haurren 5 lan festen egitarauaren azalerako (Uxue Saez de Egilazen lana irabazle).

Aukeraketa egiteko bozketa egin zen eta 50 lagun inguruk parte hartu zuten. Sari bana eman zitzaion irabazleei eta parte hartzaile guztiei aipamena.

Urtekariko azala:



Festetako egitarauaren azala:



2017ko AZALAREN LEHIAKETA(Urtekaria eta festako programa)

	IRTEERAK	SARRERAK	KOSTUA
KARTULINAK	0,00 €		
PERGAMINOAK	0,00 €		
FESTEN EGITARAUAREN IRABAZLEAREN SARIA (Margoak eta eskulanak)	49,85 €		
URTEKARIAREN AZALAREN IRABAZLEAREN SARIA (Bi laguntzat afaria)	50,00 €		
	99,85 €	0,00 €	99,85 €



- **San Juan bezpera eta Mutiloara jeitsiera**

2017ko SAN JUAN BEZPERA			
	IRTEERAK	SARRERAK	KOSTUA
ANTORTXAK	35,00 €		
OSTATUKO TORTILA...	77,00 €		
MANDIOKO TORTILA...	127,65 €		
EROSKETAK AFARI-MERIENDA	28,63 €		
	268,28 €	0,00 €	268,28 €

2017ko MUTILOARA JETSIERA			
	IRTEERAK	SARRERAK	KOSTUA
2 TRIKITILARI	40,00 €		
	40,00 €	0,00 €	40,00 €

- **Jubilatuen eskurtsioa**

Uztailean izan zen eta aurten Irantzuko monasterioa ikusi eta ondoren Lezaungo Lakar bodegak ikusi eta bertan bazkaldu zuten.

- **Herriko Festak**

Aurten ere, Abuztuaren 13tik 17ra herriko festak ospatu ditugu.



Abuztuak 14: urteroko moduan joan dira festak; lehen egunean umeen eguna, ondoren pregoia ere herriko gaztetxok egin zuten eta udako denbora libren prestatutakoa izan zen.

Sagardo dastaketan lehen gai guztiak bukatu ziren, txekorra ere bai eta iluntzean Gau Argi taldearekin dantzako giro polita sortu zen. Iluntzerako autobus zerbitzua ere jarri zen Goierriko herrietatik jendea etortzeko.

Abuztuak 15: goizeko ekintzak urteroko moduan, txakolin dastatzea Lumagorriko hegalekin eta arratsaldean herri kirol saioa izan genuen. Iluntzean gazteen txanda, trikipoteoa, afori eta mozorroekin.

Abuztuak 16: goizean herriko artzainen gazta dastatzea eta iluntzean herri aforia bertsolariekin.



2017ko HERRIKO FESTAK	IRTEERAK	SARRERAK	KOSTUA
ABUZTUAK 14, astelehena			
SANZ ATRAKZIOAK (puzgarriak...)	847,00 €		
ELIZ BUELTAKO KORRIKA SAIOKO SARIAK	36,00 €		
HAURREN ARRATSALDEKO GOXOKI ZORROAK	44,00 €		
SAGARDO DASTAKETAKO SAGARDOAK	360,00 €		
SAGARDO BASOAK	280,32 €	1.134,00 €	
TXEKORRA	1.434,00 €		
TXEKOR PINTXOAK		1.115,00 €	
ANBURGESA BEGETALAK (ONDARRE)	33,90 €		
SEITAN PINTXOAK		49,50 €	
FESTA GUZTIRAKO OGIAK	197,65 €		
TXEKOR DASTAKETAKO GAZTIAK	178,48 €		
GAZTA PINTXOAK		343,50 €	
GAU ARGI musika taldea	786,50 €		

ABUZTUAK 15, asteartea			
2 TXISTULARI	300,00 €		
TXISTULARIAREN HAMAIKETAKOA	0,00 €		
BOLATEKO SARIAK DIRUTAN	550,00 €		
BOLATEKO SARIAK SASKIA	55,12 €		
TXAKOLINAK	635,40 €		
TXAKOLIN BASOAK		600,00 €	
PILOTA TXAPELKETAKO SARIA -BI ESKU PILOTA	30,00 €		
PILOTA TXAPELKETAKO SARIA -BI LAGUNENTZAT AFARIA	50,00 €		
3 AIZKOLARIAK + 1 HARRIJASOTZAILEA + 1 INGUDEA	550,00 €		
AIZKORARAKO EGURRA	120,00 €		
ELIZAGOEN AIZPAK	480,00 €		



ABUZTUAK 16, asteazkena			
HERRIKO ARTZAINEN GAZTAK	240,42 €		
JERRY musikaria	313,10 €		
2 BERTSOLARIAK + AFARIA	540,00 €		
GASTU OROKORRAK			
BARRAKO EDARIAK	905,25 €		
EUSKAL HERRIA (platerak, mantelak...)	177,51 €		
EGITARAJETA KARTELAK	508,20 €		
SEGURAKO ZAHAR ETXERAKO PASTEL ETA TXANPAINAK (5 dorena pastelbo eta 5 txanpain botila)	105,00 €		
GAUZA TXIKIAK (ziliakontzako ogia, mojitotako osagalak eta basoak...)	168,92 €		
SARRERA OROKORRAK			
BARRAN ATERATAKOA		1.481,30 €	
MANDIO TABERNA		Bertsolari baten afaria	
OSTATU TABERNA		150,00 €	
OSTATU TABERNA		Txistularin hamaitetako	
ZERAIN PAISAJA KULTURALA		20,83 €	
OTATZA SAGARDOTEGIA		50,00 €	
OTATZA SAGARDOTEGIA		4 Kasa sagardo	
OHARTE SAGARDOTEGIA		Gazte afariko barrikotea	
LUMAGORRI		200 hegai	
ITURRIOZ		75,00 €	
AIZKORPE ELEKTRIKARIAK		50,00 €	
ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOAK AZOKA EKOLOGIKOKO EDARENGATIK		37,55 €	
	9.926,77 €	5.106,68 €	4.820,09 €

Aurten aipatzekoa da, iazko gastua baino zerbait gehiago izan dugula, baina sarrera ere gehiago izan dela:

URTEA	GASTUA	SARRERA	FESTEN KOSTUA
2015	16.062,47 €	5.038,98 €	11.023,49 €
2016	10.152,62 €	3.688,7 €	6.463,92 €
2017	9.926,77 €	5.106,68 €	4.820,09 €

● Hip Hip Urri

Aurtengo ekintza eskualde mailan antolatu da eta Zerainek, Mutiloa, Zegama, Idiazabalekin eta Segurarekin batera osatu du taldea. Herri bakoitzeko eskoletako haurrek marrazkiak egin behar zituzten eta ondoren erakusketa ibiltari bat ibili da herriz herri.

Zeraingo erakusketaren irekiera egunean Tiritatxo izan genuen laguntzaile. Ekintza honen gastua 300 eurokoa izan da.



- **Jubilatuen eguna**

Lehenko igandean, urriaren 29an, izan genuen, eta gustura pasa zuten eguna jubilatuek; meza eta ondoren bazkaria Milan Telleria eta Loidisaletxe bertsolariek lagunduta.



- **Liburutegiaren eta pilotalekuko kirol ekipamenduaren erabilera**

2016ko udazkenean berrerabilera eman zitzaion liburutegiari txukunketa batzuk eginez eta miradoreko gela ikasteko egokituz.



Urtebete eta gero, ondo funtzionatu du eta orokorrean txukun mantentzen da nahiz eta batzuetan gauzak nahastuta agertu.

Aurten gainera, Euskerako ikastaroa ere hasi da urria hasieratik eta liburutegia erabiltzen dute ikasgela bezala. Horregatik, denok txukun mantentzeko jarrera izan behar dugu denonak diren gauzekin.

Pilotalekuari dagokionez, iaztik gaur arte, bi aldiz ping pong-eko mahai puskaturik agertu da, apirilean lehenik (herrira etorri ziren eskurtsio bateko taldekideek, ustez) eta azken hilabete honetan berriro (oraingoan herritar batzuei puskatu zaie).



Baita ere kanasta baten aurrealdea lapurtu zuten udan.

DENON GAUZAK DENON ARTEAN ZAINDU BEHAR DITUGU!

● **Ikastaroak**

Aurten ere ikastaro batzuk martxan jarri dira eta edonorentzat izen emateko aukera irekia da, nahiz eta ikastaroak hasita egon.

- Yoga, asteartetan 17.30etatik 19.00etara (Kultur etxean)
- Zumba, asteazkenetan, 20.00etatik 21.00etara (Kultur etxean)



- Euskera; astelehen, asteazken eta ostiraletan 10.00etatik 12.00etara Liburutegian. 4 ikasle daude eta AEKko irakasle bat etortzen da. (Ikastaro hau, euskeraren erabilera bultzatzeko, udalak bere gain hartuko du).
- Trikitixa; astelehen, astearte eta ostegunetan arratsaldez (Medikuneko lehengo gelan eta liburutegian).

OHARRA: Ikastaro guzti hauek Mutiloarrei jakinaraziko zaizkie eta Mutiloarren ere antolatu dituztenak Zerainen jakinaraziko dizkigute, aukera gehiago izateko bi herrietako herritarrek.

● **Erakusketak**

Aipatu, urtean zehar erakusketa ezberdinak izan ditugula kultur etxean (“Emakumeak eta kalean bizitzea”, “Saharako argazkiak”, “Emakumea eta publizitatea”, “Hip Hip Urriren barruan, haurren lanak” ...) eta urtea bukatzerako ere besteren bat aurreikusten da.

Erakusketa hauek irekiak dira herritar eta bisitariarentzat.

● **Azaroko eta abenduko ekintzak**

- Azaroak 16 iluntzean: Tobera musika eskolaren kontzertua plazan.
- Abenduaren 3an Euskeraren eguna izango dugu.
- 2017ko Gabonak;
 - 24 Egunean kantu eskea, aurrez Bittoriorekin entsaioa.
 - 24 iluntzean Olentzeroren etorrera.
 - 2017ko Urtekaria herritar guztientzat.
- 2018 urte hasieran OA kultur elkarteko urteko batzarra

HERRI BIZITZA BATZORDEKO BILERAK IREKIAK DIRA ETA HILEAN BEHIN LEHENENGO ASTEAZKENETAN IZATEN DIRA 18:30EAN UDALETXEAN.



3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza

Batzorde honetan 10 lagun ari dira parte hartzen. Hilean behin izaten da bilera, hileko lehen ostegunean arratsaldeko 18:00-19:30 bitartean. Maiatzetik urrira bitartean **6 bilera** egin ditugu eta aurtengo azkena azaroaren 30ean izango da.

● Aizpeako meatzeak

Labeak egoera txarrean daude eta beharrezkoa da zerbait egitea. Hori dela eta diru laguntza eskaera egitea erabaki dugu. Dagoeneko aurkeztuta dago Espainiako Ministerioan. Eusko Jaurlaritzako deialdia zabalik dago eta proposamena lantzen ari gara bertan aurkezteko. Gipuzkoako Foru aldundiaren deialdia oraindik ez da atera eta deialdia irekitzen dutenean aurkezteko asmoa dugu.

Proiektu honen exekuzioa 2018 eta 2019 urteetan egitea aurreikusten dugu.

Aurrekontu osoa: 566.000€. Proiektu handia da eta horregatik beharrezkoa da diru laguntza lortzea proiektua egin ahal izateko. Ministerioak laguntzen badu laguntzaren ehuneko handia izaten da. Beste erakundeen diru laguntza eta Udalaren ekarpena osatzeko erabiliko genituzke.





● Kirol ekipamendua: frontoiko teilatua konpondu

Ekipamenduen Gipuzkoako planarekin (2017/2020) espektatiba handiak sortu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak baina ez da espero zena izan.

Azken urteetan diru laguntzarik jaso ez duten herriek lehentasuna izango zutela adierazi zuten. Herriko frontoiak 30 urte baino gehiago ditu eta ez du konponketa handirik izan urte horietan. Hori dela eta proiektu handia aurkeztu genuen. Azkenean 25.000 €-ko laguntza jasoko da eta frontoiko teilatua konpontzeko erabiliko da, duen egoera kaskarragatik.

Lanak urtea amaitu aurretik egingo ditugu, azaroan hasiko dira eta 15 egun iraungo dute gutxi gora behera.

○ Aurrekontua:

▪ Guztira	62.172,89 €
▪ Udalak	36.566,89 €
▪ GFA	25.613,00 €




● Etxebizitzak

Gazteei inkesta egina dago (herrian eta eskualdean). Diru laguntza eskaera egina dago baita ere.

Egingo diren apartamentuak gazteentzat eta adinekoentzat bideratuko dira alokairu babestuan (merkea). Azaroan udaletxean izena emateko aukera zabalduko da (aurre izen ematea izango da) konpromisorik gabea, aldez aurretik alokairu babestuaren baldintzak jakinaraziko ditugu. Hasierako ideia landu da orain arte eta orain proiektua lantzen ari gara.

Proiektua guztira: 617.000 €. Proiektu handia da, eta diru laguntza lortzea beharrezkoa da egin ahal izateko. Mailegu batekin osatuko da eta mailegua ordaintzeko alokairuarekin jasotakoa erabiliko da.



● Zabalegi poligonoa

Hirigintza arauak aldatu behar dira poligonoaren helburua aldatzeko (ez izateko bakarrik lehen sektorerako). Poligonoa garatzeko bi fase aurreikusten dira. Sarrerako bidea urtea amaitu aurretik egingo da. Lur jabeak hiru dira: Apain, Lumagorri eta Udala. Momentu honetan adostasunak lantzen ari gara. Adostasunak lortu eta gero Udalbatzan arauaren aldaketa prozesuari hasierako onarpena ematea da asmoa.

● Baseri bideak

2017an egiteko:

- Kozmendi auzoko bidea 16.422€ (GFA 11.495,48€ , auzotarrak 2.463,32€ , Udalak 2.463,32€)
- Zabalegi Poligonoaren sarrera bidea 19.730,67€



(Udalak-GFA 8.384,00 €, Apainek falta den zatia)

2018rako onartuta:

- Aizpean Goikoetxerako bidea (2018) 5.250€
- Barbarin Urruztirako bidea (2018) 3.345,78€
- Plazatik Goikoetxera doan bidea(2018) 14.029,11€

● **Herriko kartela**

Zerain 2014ean sartu zen UEMAN eta Euskara Plana lantzen du urtero UEMArekin.

Paisaia linguistikoa lantzen ari ginela herriko kartel nagusia oker dagoela eta, aldatzeko aukera/beharra mahaigaineratu zen. GFArekin kontsulta egin zen eta aldatzea komeni zela adierazi ziguten. Euskararen egunean BERRIA eta ZUZENA jarriko da. Aurrerantzean zaharra museoan ikusgai egongo da.



3.3 Tokiko Garapena

Hilabete eta erdiz behin elkartzen den batzordea. Zeraingo ekonomia sektoreko 10 pertsonen hartzen dugu parte : agroturismoan, ostalaritza, sagardotegiak, enpresak, artzaiak...

Aurten landutako gai nagusienak ondorengo horiek izan dira:

- **Lur mugen eguneraketa** proiektua.
- **Turismoari** lotutako lanen informazio banaketa.
- **Pirineotako Burdinaren Bideen** elkarten estatutuen sinaketa.
- **Aizpeako kartelak** eguneratzea.
- **Autokarabanentzako** parking baten proiektua (finantziario zain).
- **Zeraingo produktuak** bultzatzea azoka egunean «Zeraingo Produktuak» izeneko postu handi bat ipiniz.

● Lur mugen eguneraketa

Azken herri batzarrean bukatutzat eman zen proiektuaren landako fasea. Uztailean auzoetan bilerak egin dira txostenak eskura eman eta emaitzari buruzko edozein hobekuntza jasotzeko. Bilera hauetatik hainbat akats konpondu dira eta beraz, bukatutzat eman dugu bigarren fase hau ere.

OHARRA: eskaera gehiago jasotzen jarraituko dugu kopuru nahikoa izan arte, laguntza berri bat eskatzeko.

● Azoka ekologikoa

Azokari dagokionez, aurten eguraldi ona izan genuen, eta herritarren laguntzarekin emaitza onak izan ziren, aurten berrikuntza gisa, herriko produktuen eskaintza, Mandio dendaren eskaintza, Zeraingo arkume parrilla eta Lumagorriko oilasko hegalak postu bakarrean jarri dira *Zeraingo Produktuak* izenarekin.

Jarraian diru-kontuen taula:



AZOKA 2017	SARRERAK	IRTEERAK
DIRULAGUNTZA ZERAINGO UDALA	2.000,00 €	
DIRULAGUNTZA OSTATU	150,00 €	
DIRULAGUNTZA OTATZA	50,00 €	
DIRULAGUNTZA OIHARTE 2 KUTXA SAGARDOA		
DIRULAGUNTZA OTATZA 2 KUTXA SAGARDOA		
LUMAGORRI 300 HEGOAK		
BASAZABAL 2 GAZTA		
EUSKABER ARRUTZA 20 DOZENA		
DIRULAGUNTZA GOIMEN (KARTELAK)		
DIRULAGUNTZA ORKLI	700,00 €	
DIRULAGUNTZA AMPO	200,00 €	
DIRULAGUNTZA IRIZAR	300,00 €	
DIRULAGUNTZA KUTXA	150,00 €	
BARRAKO DIRUA	1.113,16 €	
MUZTIOKO DIRUA	115,50 €	
POSTUAK -ADRIAN BIOLUR		1.200,00 €
GAILETA TAILERRAK-XABIER AKIZU		100,00 €
EGUR TAILERRA XABIER ARRIETA		90,00 €
ALDABE POSTUA		50,00 €
TOLDOS AGUSTIN (PANKARTA BERRIA)		180,00 €
2 ARKUME		120,00 €
IMAUDIO- MIKROFONOA		48,40 €
HITZA		514,25 €
GOIERRI TB		384,78 €
SEGURA IRRATIA		100,01 €
EUSKADI IRRATIA		302,50 €
BEBIDAS UGALDE		217,77 €
OA KULTUR ELKARTEA EDARIAK		37,55 €
ARANBURU HARATEGIA TXORISO		154,15 €
ZEGAMA OKINDEGIA		113,40 €
PATATAK		40,00 €
SHOW COCKING EROSKETAK		8,86 €
BAZKAKARIA EROSKETAK		29,76 €
PLATERAK,SERBILLETAK,TENEDOREAK		29,83 €
TRANSP.LAKIOLA POSTUAK		150,00 €
	4.778,66 €	3.871,26 €
	EMAITZAK	907,40 €

Azkenik, boluntarioei eskerrak eman nahi dizkiegu: 6 pertsona tabernan, 5 sukaldean, 4 zeraingo postuan, 5 trafikoan, Tolarean 11 gazte eta beste 2 gaztek cookie-tailerrean lagundu zuten hurrengo urtean herritarrek kudeatzeko ideiarekin. Haez gain, muntaian eta desmuntaietan lagundu zuten guztiei ere eskerrak.

